Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Ortiz de Villalba Paiueta

Gasteiz, Araba (1971)



Aurkibidea

Biografia



Gasteizen jaioa. Ikastolan ikasi zuen, baina Arantzazun hasi ei zen euskara maitatzen: hiru urte egin zituen frantziskotarren ikastetxean, besteak beste Bitoriano Gandiagarekin. Musikazaletasuna ere erneta zuen ordurako: abesbatzan kantatzen zuen. Gasteizera bueltatu zenean, Udaberria euskaltegira joan zen euskara hobetzera. Lan Harremanak eta Gizarte Gradiatua ikasi zuen EHUn, Leioan. LAB sindikatuan egon zen lanean bost urtez. Musikarekin bateragarria ez zelako utzi zuen. Betagarri musika taldeko abeslaria da. Euskaraz kantatzen hasi zen lehenengotakoa izan zen Araban; Betagarri taldeak 20 urte baino gehiago daramatza oholtza gainean. Euskara irakaslea da Udaberria euskaltegian.

Zintak

GAS-009

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-16
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Hiru anai-arrebak euskaldunak

- **Erref**: GAS-009/004
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:03:01. **Bukatu**: 00:05:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Euskara etxean ez du jaso. Gurasoak erdaldunak ditu eta anai-arrebetatik ikastolara joan den bakarra bera izan da. Bere arrebak Errezilgo baserri batean ikasi zuen euskara. Anaiak, berriz, euskaltegian.

2. Arantzazu, inflexio puntua

- **Erref**: GAS-009/005
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:05:01. **Bukatu**: 00:07:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Hiru anai-arrebetatik gazteena da bera eta aukera izan zuen ikastolara joateko. Hala ere, hizkuntza eredua ez zegoen oso zehaztuta eta neurri batean beretzat kalterako izan zela uste du. 12 urterekin Arantzazura (Oñati) joan zen ikastera. Hura izan zen beretzat euskara eta euskal kultura ezagutzeko urratsik handiena.

3. Euskaltegian euskara ikasten

- **Erref**: GAS-009/007
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:12:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Arantzazun (Oñati) egon eta gero, Gasteizen institutuan ikasten hasi zen. Euskaltegian hasi zen orduan. Gaur egun Gasteizen euskaraz bizitzea oso zaila da. Hizkuntz ohiturak aldatzea ez da erraza. 18 urterekin EGA titulua atera zuen.

4. Irakasle Udaberria euskaltegian

- **Erref**: GAS-009/008
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:16:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lan harremanetan diplomatua da eta sindikalgintzan ibili izan zen. Irakasle bezala aritu izan da gero Udaberria euskaltegian. AEK eta IKA. Udaberriako irakasle gehienak ez dira arabarrak. Euskal Filologia ikastera etorri den jende asko Gasteizen gelditu da bizitzen.

5. Musikarako zaletasuna txikitatik

- **Erref**: GAS-009/009
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:16:18. **Bukatu**: 00:18:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Txikitan beti abesten aritzen zen. Arantzazun (Oñati) abesbatzan ere egon zen. Anaiak kontzertuetara eramaten zuen. Institutuko lagun batzuekin bertsioak egiten hasi zen eta gero beraien kantuak egitera pasa ziren.

6. 'Betagarri', musika talde berritzailea

- **Erref**: GAS-009/010
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:18:35. **Bukatu**: 00:20:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
'Betagarri' sortu zenean, Gasteizen ez zegoen ez ska talderik, ez euskaraz abesten zuen talderik. Euskal musika, musika "aspergarriarekin" lotzen zen neurri batean. Oso Oskorri zalea zen bera.

7. 'La nave pirata' entsegu lokalaren sorrera

- **Erref**: GAS-009/011
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:20:18. **Bukatu**: 00:23:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Bere amaren herrian, Eharin, hasi ziren entseguak egiten. Han Gasteizko musikari batzuk ezagutu zituzten eta proiektu autofinantzatu bat jarri zuten martxan. 'La nave pirata' deituriko lokala eraiki zuten eta han grabaturiko maketak 'Betagarri' ezagutzera eman zuen.

8. 'Betagarri'-ren erreferentzia musikalak

- **Erref**: GAS-009/013
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:28:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
'Betagarri' taldeak argi zeukan euskaraz abestuko zuela, nahiz eta ez zen beraien ama hizkuntza eta taldekide batzuk ez ziren euskaldunak. Erreferentzia musikalak: 'Hertzainak', 'Kortatu', 80. hamarkadako ska taldeak...

9. 'Betagarri'-k bere estilo propioa sortu zuen

- **Erref**: GAS-009/014
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:28:24. **Bukatu**: 00:31:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
'Hertzainak' taldea erreferente bat izan zen beraientzat. 'Betagarri'-k bere estilo propioa sortu zuen eta gaur egun beste talde batzuen erreferente bilakatu dela esan daiteke.

10. Abestien hizkuntzari buruz

- **Erref**: GAS-009/016
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:34:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Taldekide guztiak ados zeuden euskaraz abestearekin. Beste hizkuntza batzuetan ere egin izan dituzte kantak. Abestiak aukeratzerakoan erritmoa edo musikak lehentasuna dauka hizkuntzaren aurrean.

11. Lekuaren eta garaiaren arabera, publikoaren harrera desberdina

- **Erref**: GAS-009/017
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:34:56. **Bukatu**: 00:38:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Lekuaren arabera publikoaren erreakzioa desberdina izaten da kontzertuetan. Lehen funtzionatzen zuten abestiek agian urte batzuk beranduago ez dute funtzionatzen. Beraien ibilbidean estilo aldaketa batzuk ere probatu izan dituzte.

12. Estilo aldaketa modu naturalean etorri zen

- **Erref**: GAS-009/018

- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:38:19. **Bukatu**: 00:40:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Beti abesti mota berdina egiteak nekatu egiten du eta 'Betagarri'-ren estiloan aldaketa bat egon zen. Zaila eta arriskutsua da aldaketa egitea. Ez zuten publiko berria bilatzeagatik egin, modu naturalean gertatu zen. Orain disko berri baten prozesuan dabiltza eta abestien aukeraketa zaila da.

13. 'Betagarri'-ren ikuslegoa aldatuz joan da

- **Erref**: GAS-009/019
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:40:43. **Bukatu**: 00:43:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Gaur egun duten ikuslegoa gaztea da batez ere. Helduagoek, betiko jarraitzaileek, dagoeneko haurrak dituzte eta zailagoa da hauek kontzertuetara joatea. Kontzertu asko emateak jendea nekatu dezake.

14. Azken urteetako kontzertuen beherakada

- **Erref**: GAS-009/020
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:43:01. **Bukatu**: 00:45:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Beti izan dute kontzertu asko, azken urteetan beherakada egon den arren. Garairik oparoena 10 urte bete zituztenean izan zen. Antzeko beste talde batzuk agertu izana da arrazoietako bat. Estiloa aldatu izana izan daiteke beste bat.

15. Birak egiteari utzi diote, nahiz eta oso aberasgarria izan

- **Erref**: GAS-009/021
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:45:09. **Bukatu**: 00:47:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Azken urteetan kontzertuen beherakada izan dute. Gaur egun birak egiteari utzi diote, oso polita baina oso nekagarria delako. Lana, familia... daukate eta gero eta zailagoa da.

16. Musikak hizkuntza gainditzen du

- **Erref**: GAS-009/023
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:48:24. **Bukatu**: 00:51:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskaraz abesteak agian gehiago mugatzen du Gasteizen. Euskal hiztuna ez den jende asko joaten da beraien kontzertuetara. Atzerrian jende alternatiboa erakarri izan dute. Gasteizen euskararen bilakaera izugarria izan da.

17. Musikagatik euskarara hurbildu

- **Erref**: GAS-009/025
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:53:15. **Bukatu**: 00:55:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Musika edozein jaietan dago eta beraz jendearengana iristeko errazagoa da, baita euskarari dagokionean ere. Badago jendea musikagatik euskarara hurbildu dena, baita atzerrian ere.

18. "Atzerrian ere abestiak euskaraz?"

- **Erref**: GAS-009/027
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:56:22. **Bukatu**: 00:56:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Kanpora joandakoan abestien hizkuntza aldatzen duten galdetu izan diete.

19. Gasteiz eta Arabarekiko aurreiritziak

- **Erref**: GAS-009/028
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:56:53. **Bukatu**: 00:59:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gasteiztarra eta euskalduna zela jakitean harritzen zen jendea bazegoen lehen. Gaztetan behin Hernanin esan ziotena. Euskararen egoeraren aldaketa nabarmena izan da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com